



Arabako Bizirik-ek atzo Arabako Batzar Nagusien atarian egindako protesta. RAUL BOGAJO / FOKU

Solaria erakundeek nahasteaz baliatzen ari dela salatu dute

Iñaut Matauko Racla

Solariak Araban beste lemeretzi parke fotovoltaiko eraikitzeko prozesua abiatu izanak bazterrik nahastu ditu herrialdean. Hainbat eragile sozialek eta talde politikok arbuatu dituzte proiektu berriak, eta Arabako Herri Unibertsitatea izan da oraingoan egoera arbuatu duena. Enpresa salatzeaz gain, uste dute egoeraren erantzule nagusiak Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundia direla, energia berriztagarria ekoizteko azpigiturak instalatzeko araudiak egoera «kaotikoa» sortu baitu, eta egoera horretaz «aprobetxatzea» egotzi diote Solaritari.

Gogorarazi dute oraindik Eusko Jaurlaritzak ez duela onartu energia berriztagarrien lurralde plan sektoriala (LPS), eta Araba erdialdeko lurralde plan partziala ere onartzeko bidean dela oraindik. Bada, LPSa beharrezkoa dela uste du Arabako Herri Unibertsitatea, baina zehaztu du plan horrek kontuan hartu behar dituela plan partzialak eta Lurraldearen Antolamendurako Jarrabideak esandakoa. Solaria egiten ari dena «gehiegikeria» dela salatu dute, eta zehaztu dute hori ez litzatekeela getatuko Arabako eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek «arduratsua eta gardenago» jardungo balute.

Nabarmendu dute energia berriztagarrien hedapenak araudi garantista eta begirunetsu batean oinarrituta egin behar duela, eskumena duten erakundeek eta herritarrek erabakimena izango duten prozesuak bultzatuta. Solarien proiektuei dagokionez, berriz, administrazioei eskatu diete «berrehala» esku hartzeko, batez ere Solarien zentral fotovoltaikoek hartuko luketen azalera guztiaren zati txiki bat baitago LPSak arautuko dituen Hautatutako Kokapen Zonen barruan.

Bestalde, Ekiena enpresak Armiñonen (Araba) 108 megawattoko zentral fotovoltaiko bat egiteko aurretiazko administrazio baimena jaso du Madrilen partetik. ●

Eolikoek aurrez aurre jarri dituzte Arabako foru gobernua eta oposizioa

- Labrazako proiektua geldiarazteko mozioa eztabaidatu dute Arabako Batzar Nagusietan, baina ez da aurrera atera.
- EAJk eta PSEk esan dute parkea bideragarria dela, oposizio guztiaren kontrara.

Edurne Begiristain

GASTEIZ— Aixelindarrek Oionen (Araba) egin nahi duen Labrazako parke eolikoak eztabaida piztu zuen atzo Arabako Batzar Nagusietan. Alde batetik, gobernuaren sostengatzen duten taldeek —EAJk eta PSE-EEK— azpimarratu zuten proiektua bideragarria dela, eta, bestetik, oposizioko talde guztiak —EH Bildu, Elkarrekin Araba, PP eta Vox— parke eolikoaren aurka agertu ziren, ingurumenari eta paisaiari eragingo dizkion kalteengatik.

Zortzi haize errota eta berrogei megawattoko potentzia izango ditu parkeak —ia 30.000 etxe hornitzeko adina energia da hori—, eta 2025eko azken hiruhilekoan hasiko dira parkea eraikitzen. Aixelindar enpresa da proiektuaren bultzatzailea: Iberdrolak eta EEE Energiaren Euskal Erakundeak sortutako enpresa da; %60ko parte hartzea du Iberdrolak, eta %40koa EEEK. Eusko Jaurlaritzak 2006an eman

zuen azken aldiz parke eoliko bat eraikitzeko baimena, eta ordutik ez da gehiago eraiki. Hala, Araban ia hogeitaz gero egingo den lehen parke eolikoak izango da Labrazakoa.

Elkarrekin Araba taldearen ekimenez eztabaidatu zuten parkea bertan behera uzteko eskatzen zuten mozioa gaurko osoko bilkuran. Koalizio morreak proiektua behin-behinean geldiarazteko eskatu zuten, baina ez proposamen horrek, ezta gainerako taldeek aurkeztutako zuzenketek ere ez zuten lortu gehiengoaren babesa.

Elkarrekin Arabako bozeramaile David Rodriguezek gogorarazi zuen EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak tramiterako onartu dituela parke eolikoaren aurkako bi helegite: bata parke eolikoaren aurretiazko administrazio baimenaren aurkakoa da, eta bestea, plan bereziaren kontrakoa. Haren esanetan, proiektua «informazio publikorik gabe eta beharrezko ingurumen ebaluazio estrategiko-

rik egin gabe» eraman da aurrera. Gainera, salatu zuten herritarrek ez dutela parte hartu, eta parke eolikoak kalte handia egingo diela ingurumenari eta paisaiari.

EH Bilduk ere kritika zorrotza egin zion foru gobernuari. Xabier Valdor batzarkidearen arabera, energia berriztagarrien plangintzan egindako «aurreikuspen faltak» sortu du gaur egungo egoera, eta kritikatu zuen «konponezina» izango dela Labrazako parkeak paisaian eta ingurumenean izango duen eragina.

PPko Borja Monjek esan zuen berandu dela proiektua geldiarazteko. Hala ere, jeltzaleen politika energetikoak «porrot» egin duela salatu zuen. Bide beretik egin zituen kritikak Voxeko Jonathan Romerok.

Gobernuko kideek, berriz, irmo defendatu zuten parke eolikoa. EAJren taldeko Garikoitz Bengoaren hitzetan, proiektuak legezko berme guztiak ditu, eta ingurumenari, biodibertsitateari eta lurralde orekari dagokienez «bideragarria» da. Gainera, trantsizio energetikorako «ezinbestekoa» dela esan zuen, eta erantsi EAeko Auzitegi Nagusiak helegiteak onartu izanak ez duela zalantzan jartzen proiektua legezkoa dela. PSE-EEKo Esteban Martiarenaren ustez, Elkarrekin Arabaren mozioa

«arduragabekeria politikoa» da gaur egungo egoera.

Arabako Bizirik-en protesta
Batzar Nagusietan eztabaidatzen aritu ziren bitartean, Araba Bizirik plataformak elkarretaraztea egin zuen kanpoaldean, Labrazako zentral eolikoak ez egiteko eskatzeko. Taldearen esanetan, proiektua «ingurumenaren aurkako atentatua» da, eta bertako herritarren borondatearen kontra egingo dute.

Plataformak salatu zenez, Labrazako lur jabeek ez dute baime-nik eman proiektua gauzatzeko, eta herriak berak ere ez du onartu bere jabetzako herri bideak erabiltzea; hala ere, bide horiek erabiltzen ari dira obrak egiteko.

Kritika nagusietako bat Oiongo Udalarri zuzendu zioten. Plataformaren arabera, udalak «ilegalki» onartu zuen Labrazako zentral eolikoak ahalbidetzeko plan berezia. Horren harira, iaz Iñaki Lasagabaster Administrazio zuzenbideko katedradunak egindako adierazpenak gogorarazi zituzten: adierazi zuten udalok ezin dituztela halako plan bereziak onartu, Lurraldearen Antolamendurako Jarrabideen aurkakoak direlako. Gainera, haren esanetan, udalak ez daude plan horiek onartzera behartuta, baizik kontrara, ez onartzera behartuta daude. ●